

2025EKO IRAILAREN 9KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko irailaren bederatzian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 65 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA LAUROGEITA HAMABI MILA LAUREHUN ETA HAMAHIRU euro ETA LAUROGEITA LAU zentimokoa (192.413,84 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

II.- ARESOKO HAUR-PARKEKO JOLAS-EREMURAKO ESTALKI BAT ERAIKITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ETA LIZITAZIO DEIALDIAREN ONARPENA.-

Udal honen eskariz, Arretxe Zerbitzuak S.L.-ko Patricia Celaya Reoyo arkitektoak, Aresoko haur-parkeko jolas-eremurako estalki bat eraikitzeke proiektua idatzi du.

Proiektu honek espazio publiko horren erabilera-baldintzak hobetzeko beharrari erantzuten dio, klima-baldintza desberdinetan aprobetxatzea bermatuz eta elkartzeko eta aisialdirako gune gisa duen funtzioa indartuz.

Proiektu honen aurrekontua 368.120,73 €-koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko.

Baldintza administratiboen pleguan aldaketa bat egitea proposatu du idazkariak, esleipendunari edukitzea eskatzen zaion erantzukizun zibileko aseguruaren zenbatekoaren inguruan. Hau 600.000 €-koa izatea porposatu du. Gobernu Batzordeko kideek aldaketa hau egitea ontzat eman dute.

Hau guztia horrela, gaia aztertu ondoren gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Aresoko haur-parkeko jolas-eremurako estalki bat eraikitzekeo proiektua onartzea.
- 2.- Lanak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

III.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntza.-

2025. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Ikasle bakarria izan da, bere espedientean dauden datuen arabera, eta 100 € emango zaizkio.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

Euskara ikasten ari direnei.-

2024/2025 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarria izan da eta emango zaion kopurua 465,58 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

IV.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Antzar konpartsa, Lazkaoko erraldoi eta buruhandi elkarte taldea.-

Antzar konpartsa, Lazkaoko erraldoi eta buruhandien elkarteari, Abuztuak 23, 24 eta 25ean Vilassart de Dalten erraldoien bilkuran parte hartzeagatik 1.749,34 €-ko dirulaguntza onartzea.

V.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta Gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa erabaki du:

San Benito Ikastolari.-

Eskola Kirol Egokituaren (EKE) egitasmoa 2024/2025 ikasturtean aurrera eramate-agatik, 1.801 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 481.11.341.00 partidatik.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.